

LGTBI+ PERTSONEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA PSIKOSOZIALA



Heteronormatiboa ez den osasun mentalerako bidean

Egilea: Inmaculada (Lala) Mujika Flores

Kontzeptua, koordinazioa eta testu zuzenketa: ALDARTE taldea (Amparo Villar, Elena Olaortua, Cristina Rueda, Gaizka Villar eta Joseba Martinez de Gereñu)

Itzulpena: Bego Montorio

EUSKO JAURLARITZAK diruz lagunduta.



ALDARTE, lesbiana, gay eta trans*en arretarako zentroa
Berastegi kalea 5-5 48001 Bilbo
944237296

www.aldarte.org

aldarte@aldarte.org

[@AldarteOrg](https://twitter.com/AldarteOrg) [AldarteZentroa-Centro](https://www.facebook.com/AldarteZentroa-Centro)

Aurkibidea

AURKEZPENA	1. or.
HETERNORMATIBOA EZ DEN OSASUN MENTALERAKO BIDEAN	2. or.
PERTSONA LGTBI+ak: HISTORIA ZEHATZAK	4. or.
<i>1. historia: Aimar/Carol</i>	4. or.
<i>2. historia: Julen</i>	6. or.
<i>3. historia: Ane</i>	9. or.
<i>4. historia: Alice</i>	13. or.
BIBLIOGRAFIA	17. or.

Aurkezpena

Dokumentu honen bitartez, sexu- eta genero-aniztasunean ardazturiko laguntza psikosozialerako baliabideak eskaini nahi dizkiegu esparru terapeutiko ¹askotarikoetan osasun mentalarekin loturiko gatazken arretan diharduten pertsoneri.

Badakigu gero eta erakunde gehiagok eskaintzen dituztela bitartekoak modu terapeutikoan heltzeko bizitzan zehar izaten ditugun egoera zail horiei. Egoerok, sarritan, nahastu egiten dira sexualitatearekin eta norberak sentitzen duen generoarekin.

Osasun mentalari eta pertsona LGTBI+ei buruzko gogoeta sustatu nahi dugu, sexu- eta genero-aniztasunaren gaineko bestelako ikuspegi batzuei erreparaturik.

Uste dugu buruko osasun ez heteronormatibo bat gara daitekeela. Eta, ildo horretan, honoko hauek topatuko dituzue hurrengo orrialdeotan:

- Osasun mentala sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspuntutik birpentsatzeko garrantzitsuak iruditzen zaizkigun elementuen gaineko gogoeta.
- Terapia despatologizatzaile batek dituen helburuak.
- Laguntza psikosozialeko zenbait esperientzien azalpena; ALDARTEk eguneroko lanean sortutako adibideak dira, hogeita bost urteko ibilbidean laguntza bila hurbildu zaizkigun pertsona LGTBI+en gatazka, bizipen, errealitate eta arazo askotarikoak ezagutu baititugu.

Guretzat oso interesgarria izan da dokumentu hau jorratzea, eta espero dugu zuei ere interesgarria eta baliagarria izango zaizuela.



¹ Esparru terapeutikoak zentzu zabalean ulertzen ditugu: izan daiteke psikologia edo psikiatria kontsulta bat; izan daiteke zerbitzu instituzionala, edo ez; izan daiteke era askotako prozesuetan laguntzeko gune bat, edo elkarte baten esparrua, baita laguntza edo erreferentzia taldekoa ere. Oro har esanda, pertsonak izaten dituzten buruko gatazkei irtenbide bateratuak bilatzea ardatz duten esparruak.

Heteronormatiboa ez den osasun mentalerako bidean

Laguntza psikosozialeko esperientzia zehatzak azaldu aurretik, heteronormatiboa ez den osasun mentalaz gogoeta egitea eskatu nahi dizuegu. Kontuan hartu beharreko elementu gehiago aipa balitezke ere, jarraian agertuko ditugunak garrantzitsuak dira, gure ustez, osasun mentala heteronormatiboak ez diren ikuspuntuekin birpentsatzeko.

Kontzientzia politikoa eta soziala

(Esparru terapeutikoetan esaten edo egiten dugun horrek badu garrantzia)

Gure gorputz, desira eta generoei buruzko ohiko azalpen heterosexual, binarista eta sexistek aniztasuna ulertzeko eredu patologiko bat ekarri dute, eta etengabe sustatu dute pertsona LGBTI+enganako indarkeria soziala.

Azalpen horiek ekarpen zientifiko eta neutralizat hartu dira, eta, hala, esparru terapeutikoetan aplikatzen direnean, horiek erabiltzen dituzten pertsonak uste izaten dute oso "profesionalak eta neutroak" direla.

Ez dago halako neutraltasunik, ezta desira eta generoei buruzko ebidentzia zientifikorik. Azalpen (edo teoria) jakin bat aplikatzeak badu ondorioak pertsona LGBTI+engan, eta hori kontuan hartu beharko litzateke.

Begirada askotarikoa

(Begirada hori oztopatzen duten sexuari, generoari eta desirari buruzko eskema teorikoak)

Uste dugu sexu jakin batekin, gizona edo emakumea, jaiotzen garela, genitalki oso zehaztutako gorputzekin, ugalketarakoak, eta nerabezaroan bigarren mailako ezaugarri sexual guztiz bereizgarriak garatuko ditugula.

Horretatik abiatuz, genero maskulinoko nortasuna aurreikusten diegu gizon jaiotakoei, eta femeninoa, emakume jaiotakoei; hala, sozialki ezarritako generorol berezituaren arabera jokatu eta agertu beharko dute batzuek eta besteek. Gizonek, gainera, emakumeen gaineko maila lortzen dute.

Sexu-desirari dagokionez, heterosexualitatea hartzen da arautzat, hau da, feminitatearen eta maskulinitatearen arteko osagarritasuna.

Planteamendu arautzaile horrek pertsona asko baztertzen ditu, ez datozelako bat korrespondentzia horiekin eta exijitutako binarismo horretatik kanpo daudelako.

Diskurtso biomedikoa eta horren ondorioak

(Planteamendu determinista eta medikalizatu batetik abiatuta, ezin da esparru terapeutiko despatologizatzaileak eraiki)

Diskurtso biomedikoaren arabera, gizakion sexu-orientazioa edo generoa bat datoz zenbait mekanismo biologikorekin (DNArekin, hormonekin,...), hots, berezko zerbait dira eta bakarrik zuzen daitezke ebakuntza kirurgikoekin, hormonekin edo birmoldaketarako terapia psikologiko zenbaitekin. Bazter uzten dira norberaren hautuak eta interakzio sozialen edo kulturaren eraginak. Uste horretan oinarriturik, patologizatu eta estigmatizatu egin daiteke sexu- eta genero-aniztasunaren parte bat, eta heterosexismoa edo LGTBI+ "normalizatua" den hori planteatzen da pertsonaren garapen osasuntsu modura. Esentzializazio horren bitartez, banakako tratamendua behar duten arrazoi pertsonalak bilakatzen dituzte ondorearen arrazoi kulturalak.

Esparru terapeutikoez ezin dute despatologizatzaileak izan diskurtso horretan oinarritzen badira.

Planteamendu determinista eta medikalizatu batetik abiatuta ezin daitezke eraiki terapia despatologizatzaile bat, hots, pertsonen aukeratzeko askatasuna, autonomia edo euren desira, gorputz eta generoaren gaineko erantzukizuna sustatzen dituen terapia.

Bizitza LGTBI+ askotarikoaren aintzatespena

(Bizitza LGTBI+ guztiak dira baliozkoak)

Arriskua dago, ingurune terapeutikoetan, pertsona LGTBI+ batzuk patologizatzeko eta beste batzuk ez patologizatzeko: dauden testuinguru kulturalaren arabera edo euren gorputz, genero eta sexu-harremanetako aukerak antolatuta edo sortzeko duten moduen arabera.

Erabili ohi diren sexualitateari eta generoari buruzko eredu teorikoek, sarritan, normaltasuna erdiestea jartzen dute helburu, eta ez bizitzeko eta ondo bizitzeko modua topatzea. Pertsonak teorietara egoki daitezkeen nahi izaten da, eta ez alderantziz, beraz, etengabe kuestionatu behar dira teoria horiek, laguntza bila doazen pertsona LGTBI+en gatatzak, bizipenak, errealitatea eta problematikak barne har ditzaten.

Terapia despatologizatzaileen helburuak

- ☺ Larritasuna eta antsietatea txikiagotzen, eta sexualitatea edo genero-nortasunaren adierazpenak modu malgu, eroso eta egokian aztertzen lagundu.
- ☺ Norbere buruaren kontzeptu positibo eta osasuntsua sustatu eta indartu.
- ☺ Gaitzespenaren prebentzioa sustatu –hala nola babes eta integrazio psikosoziala–, erantzun abegikorrek eta integratzaileak eskainiz, estigma sozialari aurre egiteko modu eraginkorrek garatzen lagunduko baitute.
- ☺ Gertatzen ari dena ulertzen lagundu hezkuntzaren eta berregituraketa kognitiboaren bitartez, sexualitateari buruzko sinesmen aurrejuzgudunak eta genero-ikuspegi sexista eta binaristak aztertuz.

Pertsona LGTBI+ak: Historia zehatzak

Jarraian aurkeztuko ditugun historiak ALDARTEren laguntza psikologikorako kontsultan izandako esperientziatik abiatuta landu dira. Urte hauetan pertsona LGTBI+ek agertu dituzten gatazka zehatz horiek dituzte oinarri. Beraz, antzekotasun handiak egon arren, azalduko ditugun historia hauek ez ditugu inola ere identifikatu behar ALDARTEren kontsulta psikologikotik pasatutako pertsona jakin bat edo batzuekin.

Lehen historia

Aimar/Carol

Aimarrek 8 urte ditu, eta Lehen Hezkuntzako 3. mailan dago. Femeninotzat jotzen den guztia du gustuko: jolasak, neskekin egotea... Carol dei diezaioten nahi du, eta, ahal duen guztietan, ileorde modura jartzen du eskolako txabusina.

Aimar/Carolek izugarri maite du antzerkia, eta antzerki-saioetan erabiltzen dituzten koloretako ileordeak eskolatik kanpo erabili nahi izaten ditu; lan handia du tutoreak ulertarazteko ileorde horiek ez dituela antzerki-eskolatik kanpo erabili behar. Aimar/Carolek gero eta gehiagotan agertzen du jarrera histrioniko eta estereotipatua ikasgelan. Zaila izaten da eskola saioetan geldirik egonaraztea.

Tutoreak Aimar/Carolekin hitz egin du, eta umeak esan dio ez dela mutil sentitzen eta Carol deitzea nahi duela. Esan dio etxean ez diotela nesken jantziak erabiltzen uzten, eta amak errieta egiten diola horregatik. Ez zaio gustatzen jantzita joan ohi den moduan, mutil arrokekin, joatea ikastetxera. Amak ez dio uzten ilea luze eramaten, umeak hala nahiko lukeen arren.

Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua dela eta, urtebete darama Aimar/Carolek psikologo batekin. Tutoreak psikologo horrekin hitz egin du, eta Aimar/Carolek esandakoa kontatu dio. Psikologoak dio arreta erakartzeko modu bat dela eta ez zaiela jaramonik egin behar genero femeninoko adierazpen horiei.

Ematen du Aimar/Carolen ama ez dela ohartzen umea zer ari den bizitzen.

Galderetarako gidioa

1. Zer elementu nabarmendu beharko lirateke historia honetan, horri heldu ahal izateko?
2. Zer paper du Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduak?
3. Nola abiaraziko genuke *Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko?*

1. Gogoeta: Gure ustez, hauek dira nabarmendu beharreko elementuak:

Aimar/Caroli, antza, ez zaio gustatzen mutil modura jokatzea, halakoa dela esaten badiote ere. Ez da mutil sentitzen, eta nahiago du Carol deitzea, ikasgelako nesken antzekoa izatea eta haiekin egotea.

Etxean ez diote uzten berak nahi bezala agertzen, eta errieta egiten diote horregatik. Gelako jokamolde disruptiboak eta gehiegizko estereotipatze femeninoak lotura izan dezakete etxeko debekuarekin berak nahi bezala azaltzeko.

Gainera, Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua diagnostikatu diotenez, profesionalaren gomendioa da jaramonik ez egitea genero femeninoako adierazpen horiei.

Amak ez daki Aimar/Caroli gertatzen zaionaren berri.

2. Gogoeta: Nola hurbildu Aimar/Carolengana:

Hasteko, psikologiako profesionalaren gomendioa zalantzan jarri, bai baitirudi ez dela konturatzen Aimar/Carolek bere generoa dela-eta duen tema ez dela diagnostikatu dion nahasmenduaren beste sintoma bat.

Aurrekoarekin loturik, gogoan hartu behar dira Aimar/Carolengana kontakizuna eta nahia, eta, ahal den neurrian, ikastetxean berak nahi duen generoa azal dezan erraztu: izena, janzkera, etab.

Aimarri segurtatu Carol izan nahi badu hala izango dela, eta horretarako ez duela zertan nabarmen jokatu genero femeninoari dagokionez. Ziurtatu behar zaio beste neskatala bat gehiago izan daitekeela.

Ikastetxeko irakasleek eta zuzendaritza taldeak neurriak hartu behar dituzte Aimar/Carolengana ongizatea bermatzeko ikastetxean: izenari eta tratamenduari dagokienez, espazioei dagokienez...

3. Gogoeta: Nola hurbildu Aimar/Carolengana amarengana:

Ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko ikastetxeei zuzendutako protokoloak *argi uzten du nola jokatu behar den gurasoek ez badakite edo ez badute jakin nahi gertatzen denaren berri.*

Ikastetxea amari laguntzen saiatuko da Aimar/Carolengana egoera ulertu, onartu eta kudeatzeko prozesuan, umeak bere nortasuna eta identitatea garatzeko duen eskubidea errespetatuz: bilerak egingo dituzte, eta amarekin batera egingo dute gogoeta jarrai daitezkeen estrategiei buruz.

4. Gogoeta: Beste proposamen bat.

Ondo legoke ikastetxean programaren bat abiaraztea sexu- eta genero-aniztasuna maila guztietan lantzeko: irakasleak, ikasleak eta familiak.

Julen

Julenek 14 urte ditu, eta gay da. Une honetan DBHko 3. mailan dago. Ikasle ona da, eta ez du ikasgaiak gainditzeko arazorik. Zenbait oztupo gainditu ondoren, Julen pozik dago bere buruarekin, eta ikastetxean lagunak egiten hasi da. Ia urte eta erdiz bullyinga jasan zuen: bakarrik uzten zuten gelan, patioan edo Internet guneetan. Ikasle talde batek aktiboki sustatzen zuen isolatze hori. Halako batean, Julenek ohar iraingarriak eta mehatxagarriak jaso zituen, eta handik denbora batera tutoreari jakinarazi zion. Ikastetxean bullyingaren kontrako protokoloa abiarazi zuten. Zenbait hilabetetako lanaren ondorioz, Julenen kontrako bullyinga geraraztea lortu zuten. Lasai hasi du ikasturte berria.

Halako batean, Julenen ama ALDARTEra azaldu zen, gaztearekin, harekin hitz egin genezan. Kontua zen bi astez kaleratu zutela ikastetxetik, jazarpenagatik; antza, zakilaren argazki bat atera zuen, eta ikaskide bati bidali zion. Mutil horrek gurasoei kontatu zion, eta gurasoek, larriturik, zuzendaritzara jo zuten. Ondorioa, lehen esandakoa.

Julenekin hitz egin ondoren, ulertu egiten du ezin diela ikaskideei horrelako argazkirik bidali: horrela ez delako ligatzen, ez inor limurtzen, eta ez dakielako argazki horrek zer bide egingo duen Interneten. Julenek ez daki zergatik leporatzen dioten jazarpena egitea; harentzat oso normala da egin duena, eta ez du ulertzen beste mutilak zergatik erantzun duen horrela, uste baitzuen elkarrekin gustatuta zeudela eta bazutela zerbait elkarrekin.

Izan genituen saioetan, bi gai azaleratu ziren:

1. Oso bakarrik jarraitzen du, ikastetxeko gay bakarra baita. Kosta egiten zaio institutuan lagunak egitea.
2. Ez daki nola ligatu, nola ezagutu beste mutil gay batzuk. Beste mutilek neskekin egiten dituzten gauzak egin nahiko lituzke: elkar limurtu, eskutik lotuta joan, barrez ibili, bikotea osatu...

Gogo aldetik txarto ez dagoen arren, gai horiek larritu egiten dute, kezkak sortzen baitzaizkio etorkizunari begira: hola izango dena, beti?, hain zaila al da jendea ezagutzea?, lortuko al du gurasoenaren antzeko bizimodu bat?... Galdera horiek ditu buruan etorkizunaz. Ikaskide heterosexualentzat errazagoa dela ikusten du.

Galderetarako gidoia

1. Zein litzateke Julenek agertzen duen gatazka nagusia? Zer elementu azpimarratuko zenituzkete?
2. Logikoa da Julenek halako etorkizuna aurreikustea?
3. Gure herrian, zer ekar dezake nerabe batentzat, oraindik ere, ohartzeak LGTBI+ izan daitekeela?

1. Gogoeta: Julenek, bere sexualitatearen garapenean, lagun izan dituen elementuak.

Bakardadean, ezkutuan bizi izatea eta erreferente positiborik ez izatea dira, besteak beste, Julenek, bere sexualitatearen garapenean lagun izan dituen elementuak.

Homosexualitatea onartzeko prozesua bakardadean bizi izan du, bere sexualitatearen eta afektibitatearen garapenari normaltasunez ekin ahal izateko kanpoko erreferentzia izango ziren edo horretan lagunduko zuten pertsona heldurik gabe. Ez eskola edo institutuko hezitzaileek ez amak dakite nola landu Julenekin bere sexualitatearen alde hori. Beraz, konplexua eta funtsezkoa den prozesu hori bakarrean eta isilean bizi du. Gogora dezagun prozesu horrek pauso hauek izan ditzakeela: gertatzen ari denaz jabetzea; izen esanguratsu bat ematea sentitzen den horri; gay modura sozializatzea edo antzerako desirak dituzten beste mutil batzuekin harremanetan hastea; desberdintasuna eta nortasun berria onartzea, edo ingurukoei horren berri ematea.

Prozesu hori minez, zalantzekin eta ziurgabetasun handiarekin bizi ohi da, prozesuaren protagonista diren pertsona horiek ez dakitelako zer esan nahi duen halako prozesu bat bizitzeak. Sexualitatea ezkutuan eta kanpoko erreferenterik gabe garatzen ari denez, Julen ez da gizon homosexual modura sozializatzen ari. Bere desira berberak dituzten beste pertsona batzuk topatzea, sinbolo, balio edo hizkera komuna partekatzea, bestea limurtzen eta besteak limur zaitzan ikastea, zure gustuko pertsona non topa dezakezun jakitea, etab. funtsezko elementuak dira pertsonen sexualitatearen garapen orotan, eta Julenek ez du holakorik, bakarturik dagoelako. Sozializazio homosexuala berarekin partekatuko duen lagun talderik ez du, besteak beste, nor den gay eta nor ez den antzematea asko kostatzen zaiolako.

2. Gogoeta: Bere sexualitatea egoki garatzeko ikaskuntza berariazkoen beharra:

Gazte eta nerabe LGTBI+ak inguratzen dituzten helduek uste izaten dute gazte horiek ez dituztela berariazko ikaskuntzak behar euren sexualitatea egoki garatzeko, eta ez da horrela. Ikaskuntzetako bat da beste pertsona LGTBI+ak antzematea guztiz heterosexuala den jendarte batean, eta hori bezain garrantzitsua da jendartearen LGTBI+fobia kudeatzeko baliabide pertsonalak eskuratzea, fobia horrek euren bizitzetan izango duen eragina ahalik eta gehien murrizteko. Pertsona LGTBI+entzat guztiz oinarritzekoak diren ikaskuntza horiek ez dira burutzen burutu behar ziren garaian, hau da, nerabezaroan eta lehen gaztaroan. Gehienetan atzeratu egiten dira denboran, eta horrek izugarri zailtzen du gazte horien doikuntza psikoemozionala euren lesbianismoari edo homosexualitateari dagokionez.

3. Gogoeta: LGTBI+ modura jendarteratzeko mekanismo berariazkoagoak eskuratzea.

Normalean ez zaio garrantzirik ematen LGTBI+ modura jendarteratzeko mekanismo berariazkoak eskuratu beharrari. Uste izaten dugu aniztasunarekiko errespetua sustatzeko politikak nahikoa direla gainditzeko gazte horiek euren buruak eta beste LGTBI+ batzuk ezagutu eta errespetatzeko dituzten oztopoak. Alabaina, politika horiek oso egokiak eta baliagarriak izan arren ikasleak, oro har, aniztasunean bizi daitezen eta aniztasuna errespetatu dezaten lortzeko, badirudi ez dietela ikasle LGTBI+en beharrei erantzuten. Esparru gutxi egoten dira beste LGTBI+ batzuk aurkitu eta haiekin bizipenak elkar trukatzeko. Kontuan hartu behar da esparru edo espazio horiek oso heteronormatiboak direla, eta jakintzat ematen da heterosexuala izan beharra dagoela. Gazte eta nerabeentzako esparru oso gutxi daude prestatuak LGTBI+en aniztasuna bizitzeko. Gehienetan, oso bakarrik egoten dira.

4. Gogoeta: Interneten garrantzia. Haietako askok Interneten topatzen dute euren bakardadea zerbait leuntzeko bidea, eta han hasten dira jendarteratzen.

Aurrekoarekin lotuta, beste pertsona LGTBI+ batzuekin harreman pertsonala josteko espaziorik ez edukitzeak bultzatu egiten ditu Internetera, sare sozialetara eta harremanetarako txatetara, han jendea ezagutu eta harremanak sortzeko. Gay nerabe askok Interneten lortzen dute informazioa, eta hori ez da beti formazioa. Internetek gaur egun nola funtzionatzen duen ikusita, arrisku erantsi bat da. Sarritan, Interneten bidezkoak izaten dira euren hastapen sentimental eta sexualak, eta horrek arriskuan jartzen ditu, zaurgarriagoak baitira parekotasunik gabeko egoera horietan. Interesgarria da nazioarteko lagun asko izatea, aurrez aurre ezagutu gabe eta haiekin zuzeneko harreman pertsonalik izan gabe, eta alde horretatik Internetek asko eskain dezake, baina horrek hobeto funtzionatzen du gertuko sare sozial bat duzunean.

Ane

Anek 37 urte ditu. Urte eta erdiko ume bat du, eta harekin bizi da. Une honetan ez du bikote-lagunik. Aitaren zaintzaz arduratzen da, adinekoa baita eta alzheimer gaixotasun aurreratua du. Ez du ez neba ez ahizparik.

Kontsultara jo du lau urte eta erdiz tratu txarreko harremana izan duelako neska-lagunarekin. Aipatu duenez, tratu txarra ez zen fisikoa izan, psikologikoa baizik. Beste gauza batzuen artean, bakartze soziala pairatu du; hau da, presioak izan ditu lagunekin komunikaziorik ez izateko, eta lagun horiek alboratu egin zituen harremanak iraun zuen artean. Esaten du neska-lagun horrek gutxietsita sentitu izan dela beti, etengabe gogoratzen baitzion zer gutxi balio zuen eta zer pertsona txarra zen. Adierazi duenez, berak zeraman etxeko lanaren ardura, neska-laguna sarritan egoten baitzen gaixorik. Esan du urte horietan bikotekidearen gaitzespenaren eta etengabeko eskarien –“zatoz nirekin, ez didazu jaramonik egiten, ez nauzu zaintzen”– menpe bizi izan dela. Lana alboratzeraino heldu zela aipatu du. Oro har, beldur eta tentsio handiko urteak izan direla azaldu du, eta, batzuetan, beldur handia izan duela. Ez daki nola erori ahal izan den tratu txarreko harreman batean. Azaldu duenez, beti justifikatzen zuen neska-laguna.

Kontsultara etorri denean, bikotekide ohiak indarrean du urruntze-agindua, haren kontrako salaketa jarri baitzuen Ertzaintzan. Denbora hori pasaturik zer gertatuko den beldur dela adierazi du.

Bada zeharo aztoratzen duen gai bat, lasai bizitzen uzten ez diona. Bikotekide ohiarekin egondako azken urtean alaba bat izan zuen. Azaldu du bera arduratu dela nagusiki umearen zaintzaz, neska-lagun ohiak bigarren mailako papera zuela. Alabaren erregistroetan Ane agertzen da ama bakartzat. Kontua da Anek erru sentimendu handia duela, zeren, alde batetik, argi du alabak ezin duela bikotekide ohiarekin egon (mehatxatu egiten du esanez umeak, etorkizunean, zer gaiztoa den jakingo duela), eta umea berriro ez ikusteko esan dio, baina, beste alde batetik, izugarria iruditzen zaio alabarekin urtebetez egon den pertsona horri harekin egoten jarraitzeko aukera ukatzea.

Galderetarako gidoia

1. Zer elementu azpimarratuko zenituzkete Aneren kontakizunean?
2. Nesken arteko indarkeria izanik, nola helduko zeniokete kasu honi?
3. Zer baliabide mota dituzte, gaur egun, genero berekoen arteko indarkeriaren biktimek?
4. Zer da ama gisa jardutea?

1. Gogoeta: Genero berekoen arteko indarkeria

Ane genero berekoen arteko indarkeriaren biktima da. Harreman heterosexualetan bezala, pertsona LGBTBI+ek lotzen dituzten harremanen baitako tratu txarra alde bakarrekoa da, eta honela definitu izan da: “ Norabide bakarreko menderatze dinamika bat, bestea mendean hartzea bilatzen duten jokamolde-ereduen bitartez gauzatua eta finkatua; kronikoak bilakatzen diren taktika ezegonkortzaile eta ziklikoen etengabeko erabilerak naturalizatu egiten du menderatze hori. Aipaturiko kontrol eta bakartze teknika horiek –zeintzuen artean egon daitezkeen, edo ez, mehatxuak eta eraso fisiko eta sexualak– pertsonetako batek baliatzen ditu sistematikoki bestearen pentsamenduak, sinesmenak, baliabideak eta espazioak kontrolatzeko, baita haren lagunen eta orain edo iragan hurbilean harekin ibili diren edo gertuko harremana izan duten pertsonen jokamoldea ere”.

Tratu txarra, beraz, ez da inoiz elkarrekikoa, eta ez da haserrealdi bortitzekin edo indarkeria egintza bakanekin nahastu behar. Anek tratu txarra jasan du neska-lagunarekiko harremanean, eta funtsezko elementua da hori harreman terapeutikorako.

2. Gogoeta: Gay edo lesbiana batek bizi duen egoerari buruz konfiantzaz hitz egitea eragozten duten faktoreak:

- Ez onartzea norberak tratu txarreko harreman bat bizi izan duela, edo holakoa bizitzen ari dela. “Ezinezkoa da maite nauen horrek niri tratu txarra ematea”. Anek zenbait urtez heldu zion ezezko horri. Indarkeria noizbait amaituko zelako itxaropenaz, azkenerako, txikiagotu edo ukatu egin zuen abusua.
- Anek uste zuen bikote-laguna maitatzeko konpromisoak berarekin zekarrela norberaren sakrifizioaren ideia, bikote-harremana aurrera ateratzeko. Barneratu egin du Maitasun Erromantikoaren ideala.
- Jendartearen LGBTBI+fobia. Erakundeen, bizi garen, lan egiten edo ikasten dugun ingurunearen eta, sarritan, familia barruko LGBTBI+fobiaz gain, badago gertu-gertuko pertsonena ere: askotan gertatzen da lesbiana bat indarkeriazko harremana bizitzen ari dela ahots gora esaten ausartzen denean lagunek salaketa hori gutxiestea edo garrantzirik ez ematea. “Ez da hainbesterako izango” edo “hori zuon bion arteko kontua da” izaten dira ohiko erantzunak, eta horrek indarkeria pairatzen duen pertsonaren bakartzea eta isolatzea areagotzen du, baita tratu txarra ematen duen horren inpunitatea ere.
- Balizko errepresalien beldurra zela eta, denboraldi batez Anek ezin izan zion bere buruari planteatu bikotekidea salatzeo aukera.

3. gogoeta: Erru sentimendua:

Tratu txarra jasan duten pertsona LGBTBI+ askok euren burua egiten dute abusu horien erredun. Tratu txarra jasaten duen pertsonak barneratu egiten ditu tratu txarraren emaileak indarkeria baliatzeko erabiltzen dituen argudioak, eta, azkenerako, sinetsi egiten du berak sorrarazten duela eta merezia duela indarkeria hori. Anek sentimendu hori du, eta uste du bera dela tratu txarren erantzulea.

4. Gogoeta: Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integrala:

Estatu espainolean, Genero Indarkeriaren aurkako Legeak ez du kontuan hartzen genero bereko pertsonen arteko harreman sexu-afektiboetan gertatzen den indarkeria. Lege horri dagokionez, genero berekoen arteko indarkeria errealtate ikusezina da, eta, ondorioz, legeak ez du ezer arautzen horri buruz. Indarkeria mota horretako biktimek urrutze-aginduak baliatu ahal izango dituzte, baina ez esandako legean arautzen diren bestelako babes neurriak: harrera etxe batera joateko aukera, bizitokia edo lantokia aldatzeko aukera, lan eszedentziak (funtzio publikoaren kasuan), diru laguntzak, etab. Anek baditu bere baliabide sozialak (lagunen sarea), eta aktibatu ahal izan zituen erabaki zuenean bizi zen etxetik alde egingo zuela umearekin.

5. Gogoeta: Harreman LGBTBI+ei buruzko mito faltsuak

Pertsona LGBTBI+en arteko harremanei buruz indarrean diren zenbait mito faltsuk pentsaezina egiten dute sexu berekoen arteko indarkeria. Adibidez:

- LGBTBI+ Harremanetan gertatzen den berezko parekotasuna. Esaterako, pentsatzea gayen bikoteetan ez dagoela menpekotasuneko indarkeria harremanik, ezpada parekoen arteko elkarrekiko erasoak.
- Emakumeak, tradizioz, otzanak eta menekoak dira, eta, beraz, ezin da tratu txarrik gertatu harreman lesbiko batean.

Mito horiek zaildu egiten dute tratu txarren eragilea eta biktima identifikatzea. Esate baterako:

- Indarkeria hori tratu txarra ez dela pentsatzea, ezpada elkarrekiko sesioa.
- Emakumeen arteko harremanetan indarkeria egoerarik ezin dela egon uste izatea, eta bietako batek tratu txarra ematen badu alkoholikoa delako, buru gaixotasunen bat duelako edo arazoak dituelako jokatzeko duela horrela.
- Tratu txarren emailea indartsuena, "mari-mutilena" dela uste izatea.

6. Gogoeta: Bere burua indarkeriaren biktima gisa ikusteko kontzientzia falta

Indarkeriaren adierazpenak identifikatzen ez zituenez, Ane ez da jabetu denbora luzean bere bikote-lagunaren aldetiko tratu txarra jaso izanaz. Hori dela eta, ez zituen beharrezko neurriak hartu egoera hori gainditu eta erabat baztertzeko. Tratu txarra ematen duten pertsoneri ere hori gertatzen zaie, eta ez dute euren burua tratu txar emaitzat hartzen.

Azken garaiotan, genero berekoen arteko indarkeria hori harreman toxiko baten eragin gisa definitzeko joera dago. Ikuspegi horrek ez ditu indarkeria horren atzean dauden joera sexista eta LGTBI+fobikoak –eta beraz, egiturazkoak– aipatzen, eta, hala, biktimak bere burua tratu txarreko biktima gisa hautemateko kontzientzia eza sustatzen da.

7. Gogoeta: Nor da ama?

Landu beharko den alorretako bat izango da zer paper (ama gisakoa?) izan dezakeen bikotekide ohiak Aneren alabarekiko. Gai hori oso eztabaidagarria da etikoki, zenbait galderari erantzun behar baitzaio: umearentzat, interesgarria da Aneren bikotekide ohiak ama modura jokatzeko jarraitzea? Zaintzaren lehen hilabeteetan bertan izateak eskubidea ematen al dio Aneren bikotekide ohiari umearen ama modura jarduteko? Zilegi da Anek pentsatzea bikotekide ohiak ez duela umearen ama papera bete behar?... Baita harreman terapeutikoan sor daitezken bestelako galdera asko ere.

Alice

Alicek 36 urte ditu, Kamerunekoa da, eta hilabete bat darama Bilbon, non asiloa eskatu duen lesbiana izateagatik jazarpena dela eta. Alice gizon batekin ezkondua dago, eta hiru ume izan ditu harekin. Umeak Kamerunen daude, senarraren familiaren zaintzapean. Gurutze Gorriak Bilbon errefuxiatuentzat dauden pisuetako bat esleitu dio Aliceri. Alice musulmana da.

Sentitzen duen tristura itzela dela eta jo du Alicek kontsultara. Esan daiteke depresio handi batean murgilduta dagoela. Ezin du ezertan zentratu, eta negar egiteko gogoia baino ez du; negar egin eta mundutik isolatu.

Bere egoerari buruz galdetzen zaionean, Kamerunen jasandako indarkeria gertaerak aipatzen ditu Alicek. Familiaren aldetiko indarkeria –hark salatu baitzuen poliziaren aurrean–, eta estatuaren aldetiko indarkeria, kartzelan jo eta bortxatu egin baitzuten. Askatu zutenean, berehala egin zuen alde Kamerunetik, eta ia bi urte behar izan ditu Bilbora heltzeko. Tarte horretan, umiliazio ugari pairatu ditu.

Seme-alabak bi urtean ikusi ez izanak sortzen dion tristura ere azpimarratu du Alicek; harremanen bat izan du haiekin, baina Alicerentzat ez da nahikoa izan. Erru sentimendu handia du, lesbiana izateak familiari sorrarazi dion kalteagatik.

Bere sexualitateari dagokionez, esaten du ez dagoela gustura, eta dudatsu agertzen da bere sexu-joeraz mintzatzerakoan edo hori definitzerakoan. Hitz egiteko edo bere burua agertzeko beldur da. Dituen sexu-desirengatik lotsatuta dagoela azaltzen du, bere erlijioaren kontrakoak baitira.

Galderetarako gidoia

1. Zer elementu aipatuko zenituzkete Aliceren kontakizunean?
2. Gainerako populazio LGTBI+arekin alderatuta, zaurgarriagoa izan daiteke Alice migrantea delako?
3. Zer ondorio izan ditzake LGTBI+ izateagatik irain, laido eta erasoz beteriko bizimodua izateak?
4. Nola bateratzen dira sinesmen erlijiosoak eta LGTBI+ izatea?

1. Gogoeta: Lesbiana izatea eta beste kultura batzuetatik etortzea

Lesbianismoa, oraindik ere, gure herrira heltzen diren emakumeengan nekez antzematen den kontua da, zeren heterosexualitatearen ustezko unibertsaltasunaren “idatzi gabeko” lege horren eraginez, “heterosexualtzat” jotzen baitituzte, eta emakumeak ez badu berariaz adierazten, oharkabean geratuko da. Pertsona migratuentzako harrera, laguntza eta arreta protokoloetan ez da gai garrantzitsutzat jotzen sexu- edo genero-identitatea. Oker bidez, uste izaten da badituztela sexualitatea baino arazo larriagoak, eta, hala, emakume askoren balizko lesbianismoa ezkutuan geratzen da.

Beraz, normalean, immigrazioaz dihardugunean irizpide ekonomikoak baino ez ditugu kontuan hartzen, eta pentsatu ohi dugu behar ekonomikoak, goseak edo gerrak direla hainbat pertsona gure herrira etorrazten dituzten arrazoi bakarrak; bestelako zioak –kulturalak, sexualak edo errepresiboak– ez ditugu kontuan izaten.

Herrialde askotan, lesbiana izatea ez da eskubide bat, ezpada kaltea. Lesbianismoa bekatutzat jotzen da, gaixotasun edo desbideratze sozial nahiz ideologikotzat, eta, sarritan, euren kulturari traizio egin izana leporatzen diete lesbianeiei. Munduko herrialde ugartan onartzen ari diren bazterkeriaren kontrako legeak gorabehera, jarrera sexista eta LGTBI+fobikoen nagusitasunak sorrarazten duen indarkeria giroak arriskuan jartzen ditu, bereziki, lesbianak, euren bizi-inguruneetan –etxean, lanean, taldean... –, eta ihes egitera bultzatzen ditu.

Era berean, lesbianismoa izan daiteke, eta hala izaten ari da, migratzeko arrazoi bat (nahiz eta ez beti argi adierazi), batez ere gure herrian ezkontza zibilari eta adopzioari buruzko erreformen eraginez lortu den legezko berdintasuna erdietsi zenetik, eta zuzena da pentsatzea hori erakargarria dela zenbait lesbianarentzat, euren bizipen lesbikoak garatzeko baldintzak aldatu nahi dituztenean. Azken urteotan kolektibo LGTBI+arentzat lortu diren lege aurrerapenak direla eta, lesbiana askok gure herria aukeratzen dute bizitzeko toki hobe bat bilatzen dutelako, euren sexualitatea guztiz garatu ahal izango duten eta jaioterrian ukatzen zaien onespren soziala erdietsiko duten toki bat.

2. Gogoeta: Erlijioaren eragina

Erlijioa da, familiarekin eta hezkuntza sistemarekin batera, pertsonen irizpide moraletan eta haien jokamoldeetan eragin handiena duen erakundea. Pertsona LGTBI+en kondena konstante bat izan da elizen baitan, eta horien doktrinak izan dira LGTBI+aren kontrako aurrejuzguen arrazoi nagusietako bat. Elizen jarrera horren eraginez oso zaila da lesbianen, gayen edo transen elkarbizitza haien baitan. Elizetako askok emakumearekiko duten jarrerak bereziki zaila egiten du lesbianismoa praktikatzea.

Alicerentzat, sexualitateak hertsatzeko tresna eta bitarteko diren lotsa, erruduntasuna eta ezkutatzea areagotu egiten dira erlijioaren baldintzapean bizi dituelako.

Aliceren historiak argi adierazten du nola homosexualitatearen kontrako sinesmen moral eta erlijiosoek prozesu nahasi, kontraesankor eta emozionalki malkartsuetara bultzatzen dituzten emakumeak, eta gaindiezineko oztopo bilakatzen dira nor bere desira sexuala duintasunez, ikusgaitasunez eta osasun mentalaz garatu ahal izateko.

3. Gogoeta: LGTBI+ izateagatiko migrazio behartua

Mundu osoko migratu LGTBI+ behartuek salatzen dute gertaera traumatiko ugari jasan behar izan dituztela bizitzan zehar. Gertaera horien artean daude, besteak beste, hitzezko abusuak, abusu emozional, fisiko eta sexualak, erasoak, jazarpena, gaitzespen orokorra, irainak, bereizkeria etxebizitza edo lanpostua eskuratzekoan, ondasunak suntsitzea, xantaiak, beharturiko prostituzioa, beharturiko ezkontza heterosexualak, “bortxaketa zentzagarriak” (batez ere lesbianen kasuan) eta sexu-orientazioa aldarazteko interbentzio hertsagarriak.

Alice sexu- eta genero-nortasunagatiko indarkeriaren biktima da, eta familian apenas topatzen du kontsolamendua, lagundu ordez jazarpenarekin bat egiten baitute, eta, hala, abusua bultzatzen. Migratu LGTBI+ askok salatzen dute familiaren aldetiko indarkeria emozionala, hitzezkoa, fisikoa eta sexuala. Familia barruko egoera hori are gehiago zailtzen dute seme-alabengandik bereizi beharrak eta euren burua familiako “zorigaitzat” jotzeak eragindako erruduntasunak.

Alicek ondorio psikologiko larriak ditu, bizitzan zehar pilatutako traumen eraginez. Depresio kronikoa du, baita antsietate nahasmendu zabaldua ere. Bizipen traumatikoak ekartzen ditu gogora, blokeatzeko joera du, eta saiatzeko haiek gogora ez ekartzen; hiper-alerta egoeran dago.

4. Gogoeta: Erreferentziazko komunitate kulturala eta tokiko komunitate kulturala

Pertsona LGTBI+ek, sarritan, ez dute erreferentziako komunitatearen laguntza izaten behin harrera herrira helduta. Herrikideek ihes egin beharra eta beldurra eragin zien jende hura guztia ekartzen diete gogora. Haien komunitateko pertsonetikiko harremanari eusten diotenean, ez dute ez euren sexualitatea ez eta sentitzen duten generoa azaleratzen. Haien erreferentziako komunitateak bazterkeria sortzaile izan daitezke, eta jatorrizko herrian bizi zituzten baldintza berberetan bizi araz ditzakete. Egoera horrek nahigabe eta frustrazio handia sortzen die, pentsatzen baitute “alferrik” egin zutela ihes, zeren, prozesu osoa pasatu eta gero, euren sexu-orientazioa ezkutatzeko jarraitzen baitute, eta jendeak jakingo duen beldur dira.

Gainera, harrera herriko elkarte LGTBI+ak topatzen dituztenean, errudun eta lotsaturik senti daitezke duten jazarpen historialagatik, eta ezkutatu egiten diote pertsona LGTBI+en sare sozial berriari; hala, laguntza sozialerako balizko bi iturri handi galtzen dituzte, eta, sarritan, guztiz bakartuta sentitzen dira. Euren burua LGTBI+ gisa hautemateko modua etengabe aldatzen da, jendeak nola erantzuten duen neurtzen duten artean. Sarritan, sinesgaitza egiten zaie ikustea badagoela jendea haiek laguntzeko prest, LGTBI+ izanagatik ere; baina gerta daiteke, halaber, jende berria ezagutzen dutenean beldurrez egotea, hiperbigilantzia egoera batean.

BIBLIOGRAFIA

- AAVV. [Lesbianas con recursos](#). Emakunde Ikerketarako beka (2013), Bilbo, 2015
- AAVV. [Género binario y experiencia de las personas transexuales y transgénero](#). *Revista de Salud Mental Revista Norte*. Vol. XI nº 45, febrero 2013.
- AAVV, [Pediatrics Official Journal of the American Academy of Pediatrics. Consensus Statement on Management of Intersex Disorders](#), 8 de octubre de 2011.
- ALDARTE. [Por los buenos tratos en las relaciones lésbicas y homosexuales](#). Aldarte, 2012. [No estamos locas, sabemos lo que queremos](#). Aldarte, 2009.
- ARARTEKO. [Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin](#). Arartekoa, 2009.
- BERISTAIN, Carlos Martín, RIERA, Francesc, *Afirmación y resistencia, la comunidad como apoyo*, Virus argitaletxea, 1993.
- COGAM, [LGBT-fobia en las aulas 2015. ¿Educamos en la diversidad afectivo-sexual? Madril: Grupo de Educación de COGAM, 2015](#)
- COLL-PLANAS, Gerard, *La voluntad y el deseo. La construcción social del género y la sexualidad: el caso de lesbianas, gais y trans*, Egales argitaletxea, Madril, 2010.
- FELGTB [“Acoso escolar \(y riesgo de suicidio\) por orientación sexual e identidad de género: Fracaso del sistema educativo”](#) Madril, 2013
- FELGTB y COGAM, [Estudio sobre la discriminación por orientación sexual y/o identidad de género en España](#), Madril, 2013.
- FELGTB, [Informe Salud Sexual, VIH, y otras ITS en mujeres lesbianas, bisexuales y otras mujeres que tienen sexo con mujeres\(MsM\)](#), Madril, 2012.
- FERNÁNDEZ, SANDRA. *Derechos sanitarios desde el reconocimiento de la diversidad. Alternativas a la violencia de la psiquiatrización de las identidades trans*, in Missé, M. eta Coll-Planas, G., *El género desordenado*. Egales argitaletxea, 2010.
- GARAIZABAL, Cristina, VAZQUEZ, Norma, *El dolor Invisible. Una experiencia de grupos de auto apoyo con mujeres salvadoreñas*, Talasa argitaletxea, Hablan las mujeres bilduma, 1994.
- MISSÉ, Miquel, *Transexualidades otras miradas posibles*, Egales argitaletxea, Madril, 2013.
- MISSÉ, Miquel, *A la conquista del cuerpo equivocado*, Egales argitaletxea, Madril, 2019.
- MUJIKA, INMACULADA. [Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi](#). Giza Eskubideak bilduma, Arartekoa, 2007.
- MUJIKA, INMACULADA. “Immigrazioa eta krisiaren eragina” [EAEko immigrazioari buruzko 2013ko urtekaria. Etorkinak eta aniztasun afektibo sexuala](#). Eusko Jaurlaritza eta EHU, 2013.
- PLATERO, Raquel (Lucas), *Trans* sexualidades. Acompañamiento, factores de salud y recursos educativos*. Bellaterra argitaletxea, Bartzelona, 2014.
- STEILAS, [Sexu- eta genero-aniztasuna lantzeko materialak eta unitate didaktikoak](#).
- STRYKER, Susan, *Historia de lo Trans*. Continta me tienes argitaletxea, 2017
- WEEKS, Jeffrey, “Valores en una era de incertidumbre”, en *Construyendo identidades, estudios desde el corazón de una pandemia*, Lamas, R. (Comp.), S.XXI argitaletxea, Madril, 1996.